



HAL
open science

”Asko”ren zenbait alderdi

Ricardo Rikardo, R. Etxepare

► **To cite this version:**

Ricardo Rikardo, R. Etxepare. ”Asko”ren zenbait alderdi. Lapurdum, 2000, V, pp.99-111. artxibo-00000092

HAL Id: artxibo-00000092

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00000092>

Submitted on 4 Apr 2006

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L’archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d’enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

O. Sarrera

Euskararen zenbatzaile batzuk¹ (*asko, gutxi, hainbat, zenbait, ugari, franko, gehiago/gutxiago*) hirugarren pertsona singularreko komunztadura hartzen ahal dute, beren interpretazio plurala gora-behera:

(1) a. Bezero asko sartu da gaur b. Bezero asko sartu dira gaur

Euskararen gramatika tradizional eta deskriptiboek (aipatu izan dutenean) bi eratan hartu izan dute fenomeno hau²: batzuek (Lafitte, 1962, 111.orr.; Euskaltzaindiaren Euskal Gramatika Laburra:Perpau Bakuna, 1993, 105-109.orr.), guziz hautazkotzat bezala jotzen dute; besteek, berriz, (Txillardegia, 1979; Euskaltzaindiaren EGLU I, 1985, 205-208.orr.), zenbatzailearen ondoan dagoen izenaren izaera nozional (masa/objektu) edo algebraikoaren (multzo/banako) markatzaile gisa hartzen dute komunztaduraren agertzea edo ezabatzea. Lan honek *asko* zenbatzailearen eta komunztaduraren arteko elkarketaren analisi xeheagoa egin nahi luke, orain arte kontutan hartu izan den datu eremua zabalduaz, eta tartean diren nozio semantikoak argituaz³. Erakusten saiatuko gara zenbatzaile plural komunztaduragabeak ((1a) erakoak) distributiboak eta proportzionalak direla.

Lehen atalean, fenomeno honetaz agertu diren iritzien azterketa kritikoa egingo dugu. Bigarrenean, komunztaduragabeko zenbatzaile pluralen propietate distributiboak agertuko ditugu: ahalbideratzen dituzten uztardura erlazioen eremu hertsia (2.1), zenbatzaileen multzo izaerari dagozkion desberdintasunak (2.2.), predikazio klase desberdinen aurreko portaera diferentea (2.3.) eta azkenik, banaketa adierazten duten beste osagaiekin (elkarkariak eta *-na* atzizkidun sintagmak) konbinatzeko ezintasuna (2.4), (2.5). Hirugarren atalean, komunztadurarik gabeko *asko*-ren propietate proportzionala aztertuko dugu. Eztabaida osoa maila deskriptiboan eginga da.

1. Orain artekoak: Txillardegia (1978) eta EGLU I (1985)

Zenbatzaileen eta komunztaduraren arteko erlazioaz idatzi diren lan asko Txillardegirenean dute iturburua (1972, 1977, 1978). Txillardegiren arabera (1978,

37. eta 62-63.orr.), komunztaduragabeko zenbatzaileek (kardinaletatik hasita) multzotasuna adierazten dute, eta komunztaduradunek berriz, multzoaren elementuak, banaka hartuta⁴. Txillardegiren ustea mugagabetasunaren ikuspegi jakin baten baitan ulertu behar da. Haren arabera, pluraleko forma guztiak bi eratan eman daitezke : (i) multzo gisa ; (ii) multzo horren barneko elementuen zenbaketa gisa. Lehenbizikoari mugagabea dagokio ; bigarrenari berriz artikulatu plurala eta pluraleko komunztadura. Pluraleko forma desberdinen arteko aurkakotasuna perpaus pare honen bitartez eman daiteke (37.orr.) :

- (2) a. Hiruri aditzen zaio b. Hiruei aditzen zaie

Lehenbizikoak hiru kantarik osatutako multzoa adieraziko luke, eta bigarrenak hiru kantari desberdinen jarduna, nor bere aldetikakoa. Ikuspegi honen baitan, (3b) bezalako perpausak, (3a)ren ordezkotzat hartuak, sistematik kanpo gelditzen dira, eta Txillardegik erdaratikakotzat jotzen ditu :⁵

- (3) a. Bi liburu erosi dut b. Bi liburu erosi ditut

Sistema berbera kardinalak ez diren zenbatzaileetara ere zabaltzen du. Honela, *asko* mugagabe komunztaduragabea multzotasunaren adierazle ateratzen da, eta *asko* komunztaduraduna, berriz, askotasuna osatzen duten elementuen adierazle.⁶ Tarteko exenpluak, hala nola (1b)ren gisakoak, sistemaz kanpokoak dira, eta erdarari egotzi behar zaizkio. Txillardegiren sisteman, ez da deus ere esplikatzen beharrik (1a) eta (1b) bezalako fenomeno baten aurrean, (1b) « kutsaturiko » forma bat baita, euskal sistema zaharrari iratxeki zaiona kanpo eragileen bitartez. Txillardegiren mugagabetasunaren ikuspegiak zenbait jende mintzatu da lehenago, zuzen osoz arbuiatzeko⁷. Deskriptiboki, Txillardegik zubereraren ekarrietan hartzen du oin⁸. Egungo zubereraren arauak, baina, askoz ere konplikatua ematen du (Coyos, 1999)⁹, eta ez du biderik ematen Txillardegik proposaturiko arau (deskriptibo) horretarako.

EGLU I –ek (1985, 223.orr.) masa/banako oposizioaren baitan ezartzen du numero komunztaduraren ezabatzea¹⁰. Adibide gisa honako bi perpauson konparazioa ematen du:

- (4) a. Liburu asko erosi dut b. Liburu asko erosi ditut

(4a)k eta (4b)k, EGLU I-en arabera, ez dute interpretazio bera: « ...lehenbiziko adibidean *liburu* ‘masa’ hartzen dugu gogoan. Bigarrenean, berriz, liburu bat, eta beste bat e.a. » Berehala, argiagoa izan nahi duen exenplu batera jotzen du, oraingoan « harri asko » bezalako izen sintagma batekin :

- (5) a. Harri asko bota dute b. Harri asko bota dituzte

(5a)n, « harri » zenbakaitz modura hartua da, harri kantitate handi baten gisa. Aldiz, (5b)n, harri kopuru haundia (harri ale asko, alegia) bota dutela esaten da. Ezer baino lehen, ohar gaitzen honek zuzenean konponduko lukeela komunztaduraren auzia: masa izenek ere ez dute ageriko komunztadurarik.

EGLUren hipotesiak badu problema handi bat: harria masa izan daiteke, ura, ardoa edo ogia bezala. Liburua, ordea –ibaia, zirkulua edo molekula bezala-, ez¹¹.

Masa bezala hartua izateak baditu ondorio gramatikal garbi batzuk, « liburu » hitzak onartzen ez dituenak. Hona hemen bost : (i) « harri »-k neurtua izatea ahalbidetzen du, baina « liburu »-k ez :

(6) a. Hiru kilo harri b. #Hiru kilo liburu

(ii) Artikulua hartzen duelarik, « harri » bezalako hitz bat (« ogia », « ardoa » edo « ura » masa hitzak bezala) ez da nahitaez entzule/hizlariaren ezagun bihurtzen. « Liburu » bezalako izen zenbagarri bat berriz bai (« aulki », « mahai », edo « bizilagun » bezala) :

(7) a. Harria ekarri dute (zuk espero zenuena, edo lehen aipamena diskurtsuan)
b. Liburua ekarri dute (zuk dakizun hori, nahitaez)

(iii) Lonning-ek (1987) ikusi zuen bezala, masa terminoek ezin dute predikazio erlazioan egon « homogenotasunaren »¹² propietatea erakusten ez duten predikatuekin. Izen zenbagarriak bai :

(8) a. *Ur askok 3 kilo baino gehiago pisatzen du
b. Zaldi askok 300 kilo baino gehiago pisatzen du

(iv) Masa izenez osaturiko sintagma kuantifikazionalak predikatu gisa ager daitezke, ez ordea izen zenbagarritz osaturikoak :

(9) a. Eratzun hori urre asko da b. Zaku hori harri asko da

(10) *Multzo/talde hori ikasle asko da

(v) Azkenik, ikusi dugu singularreko komunztadura *asko* ren propietatea bakarrik ez dela: bada zenbatzaile multzo bat propietate berbera erakusten duena. Horietako batzuk ez dute masa izenik onartzen, *zenbait* -ek edo *hainbat* -ek, kasu¹³.

(11) a. #Zenbait ardo edan dugu (masa interpretazioan)
b. #Hainbat ardo edan dugu (masa interpretazioan)

Fenomeno berberaren aurrean bagaude, pluraleko komunztaduraren ezabaketak ezin du lotua egon izenaren masa izatearekin.

Hurrengo ataletan, *asko* +izen zenbagarri+singularreko komunztadura egituraren semantikazko puntu batzuk argitzen saiatuko naiz. Horretarako sintaxi eremua zabalduko dut, egitura horiek kontestu sintaktiko desberdinetan paratuaz eta haien portaera aztertuz.

2. Singularreko formen izaera distributiboa

2.1. UZTARDURAREN EREMUA

Hizkuntza naturalek erreferentzia kidetasuna adierazteko elementu berezituak dituzte, anafora izena dutenak: anaforak, aurretik mugaturiko erreferentzia jakin baten berritzaile dira. Erreferentzia hori, hizketa kontestuak nahiz perpausean gauzaturiko izen sintagmek ekartzen dute. Perpausean gauzaturiko erreferentzia ekar-

leak izendatzeko aitzindari hitza erabiltzen da. Aitzindariaren eta anaforaren artean ezartzen den erlazioari uztardura deituko diot (Salaburu, 1985). Gauza jakina da, Postal (1971) eta Reinhart-en (1983) lanaren ondorioz bereziki, aitzindariaren izaera semantikoak zer esan haundia duela aitzindariaren eta anaforaren artean uztardura erlazioa ezarri ahal izateko orduan. Ikus esate baterako bi perpauson arteko diferentzia :

(11) a. Langile hori_i baitezpadakoa zaigu, baina _i/berak_i beste lantegi batera joan nahi du.

b. *Langile bakoitza/mundu guztia_i baitezpadakoa zaigu, baina _i/berak_i beste nonbaitera joan nahi du.

(11a) exenpluan baitezpadako langilea eta beste nonbaitera joan nahi duena langile berbera izan daitezke (berez, kontestu honetan nekez uler daiteke bestela). (11b)n ordea, ezin uler daiteke horrela: langilea eta beste lantegira joailea diferenteak izan behar dute erreferentzian, nahi eta nahi ez (hortik sortzen da perpausen arteko *non sequitur* efektua). Arazoa ez da berez *langile bakoitza* sintagma. Honelako sintagmak aitzindari izan daitezke bestela ere :

(12) Langile bakoitzak/mundu guztiaki pentsatzen du _i beste lantegi batera joan beharko duela

(11) eta (12) exenpluetatik sortzen den generalizazioa hauxe da : izen sintagma erreferentziadunak ez bezala, erreferentzia zuzena ez duten elementuek perpaus beraren barnean bakarrik joka dezaketela aitzindari gisa. Zenbatzaileon ezintasunak ez dira hor bukatzen : har esate baterako ondoko bi perpausok.

(13) a. [Bizilagun bakoitzak]_i [_i/berai agurtzen duen auzotarra] gorrotatzen du
b. *[_/bera_i agurtzen duen bizilagunak] [auzotar bakoitza]_i gorrotatzen du

Postalek (1971) ikusi zuen bezala, aitzindaria honelako zenbatzaile bat denean, aitzindaria eta anaforaren artean uztardura erlazioa ezartzeko kondizio sintaktiko bat obeditu behar da: (informalki mintzatuaz) aitzindariak ezin du egon, sintaxi egituran, anafora baino azpirago (ikus baita ere Zribi-Hertz 1996, 87-96.orr). Kondizio hori (13a)n obeditzen da, ez ordea (13b)n. Kondizio hau zenbatzaileei bakarrik dagokie. Ikus bestela (14) :

(14) a. [Gure bizilagunak]_i [_i/bera_i agurtzen duen auzotarra] gorrotatzen du
b. [_i agurtzen duen auzotarrak] gure bizilaguna_i gorrotatzen du

(14) exenpluan ez bezala, (12) eta (13)an anaforaren erreferentzia zenbatzailearen hedaduraren arabera aldatzen da. Beste hitzetan esanda, anafora hori aldagai bat da.

Asko ren kasura itzulita, ohartzen gara komunztaduradun eta komunztaduragabeko aldaerek ez dutela berdin jokatzeko uztardurari buruz: komunztaduradun aldaerek erreferentziadun sintagmek bezala jokatzeko dute ; komunztadurarik gabeek ordea, zenbatzaileek bezala. Hasteko, uztardura ezin ezar daiteke perpausetik kanpo singularreko komunztadura gordez, bai ordea pluralekoarekin :

(15) a. *Bezere asko_i ez da aspaldian agertzen, baina ezin diogu _i etxera deitu
b. Bezere asko_i ez dira aspaldian agertzen, baina ezin diegu _i etxera deitu

Ikusi gainera, hau ez dela gertatzen masa izenez hornituak datozen izen sintagma singularrekin :

- (16) a. *Bezero asko_i sartu da gaur. Ez da halabaina _i oso pozik atera.
b. Harri asko_i ekarri dute gaur. Ez da, halabaina, _i nahi genuen modukoa.

Bakoitz -en moduko zenbatzaileekin gertatzen den bezala, aitzindariaren posizio sintaktikoak ere axola du :

- (17) a. Bezero askok_i [_i genero txarra saltzen dien dendaria] salatzen dute
b. [_i genero txarra saltzen dien dendariak] bezero asko_i aspertzen ditu
(18) a. Bezero askok_i [_i genero txarra saltzen dion dendaria] salatzen du
b. [_i * genero txarra saltzen dion dendariak] bezero asko_i aspertzen du

Anaforaren eremuan, bada oraindik beste ezaugarri bat komunztadurarik gabeko zenbatzaileak bereizten dituen, komunztadura egiten dutenei buruz. Gogora komunztadurarik egiten duten nahiz egiten ez duten zenbatzaileek plural-leko anafora ukan dezaketela :

- (19) a. Bezero asko_i sartu da gaur. Ez dira, halabaina, _i oso pozik atera.
b. Bezero asko_i sartu dira gaur. Ez dira, halabaina, _i oso pozik atera

Aldiz, kontestu sintaktiko jakin batzuetan komunztadurarik gabeko zenbatzaileak singularreko formadun anafora baizik ez dezake baimen:

- (20) a. Bezero askok_i [_i beherapen bat egingo *diozula*/**diezula*] uste du
b. Bezero askok_i [_i beherapen bat egingo **diozula*/*diezula*] uste dute

(21) [Eskolatik _i botatzen badute] ikasle askok_i (oraindik ere) beste eskola batean sartzeko eskubidea izanen du/*dute

Honetan ere, komunztadurarik gabeko *asko bakoitz* -en moduko zenbatzaileen gisan portatzen da :

(22) Bezero bakoitzak/mundu guziak_i [_i beherapen bat egingo *diozula*/**diezula*] uste du

Ezaugarri horiek erakusten dituzten zenbatzaileak zenbatasun moeta jakin bati dagozkio: banaketari, alegia. Uztardura datuez aparte, honek komunztadurarenak ere argitzen ditu : komunztadura eza ez da bakarrik masa elementuen propietate bat, baizik eta zenbatzaile distributiboak biltzen dituen ezaugarri morfologikoa ere bai¹⁴.

2.2. IRAKURKETA KOLEKTIBO ETA DISTRIBUTIBOAK

Har dezagun ondoko perpausa:

(23) Gazteek harriztar hori altxatu dute

Perpausak bi interpretazio ukan ditzake: gazteek, elkar hartuta, harriztarra altxatu dute, edo taldeko gazte bakoitzak egin du, zaharragoei haizu ez zaigun erakustaldi bikainean. Lehenbiziko interpretazioari interpretazio kolektiboa deituko diot. Bigarrenari interpretazio distributiboa. *Asko* -ren kasuan, badirudi komunz-

taduraren presentziak eragina duela sortzen diren interpretazioetan. Horra lehenbizi komunztaduraduna :

(24) Azkenean gazte askok altxatu behar izan zuten harrizarra

(24)k baditu bi interpretazio, (23)k bezala : interpretazio kolektiboa, non gazteek elkarrekin altxatu behar izan zuten harrizarra, eta interpretazio distributiboa, non gazteek bakarka altxatu zuten eta halaxe egin zutenak asko ziren.

Orain komunztaduragabea :

(25) Azkenean gazte askok altxatu behar izan zuen harria

(25) perpausak interpretazio bakarra du: distributiboa. Ezin uler daiteke, (25) esanik, gazteek harrizarra elkarrekin altxatu zutela, bakarka izan behar du¹⁵.

Singularreko formak distributiboak badira, espero dugu banakako interpretazioa onartzen ez duten predikatuekin ez direla ongi joango. Predikzioa, itxura batean, betetzen da :

(26) a. Ikasle ohi asko(k) festa horretan topo egin zuten/topatu ziren
b. *Ikasle ohi asko(k) festa horretan topo egin zuen/topatu zen¹⁶

(27) a. Lantegian, langile asko batzartu ziren
b. *Lantegian, langile asko batzartu zen

2.3. PREDIKAZIO KATEGORIKOAK ETA EGOERAZKOAK

Asko singularrekoa ezin du agertu predikazio kategorikoetan (subjektuaren berezko propietate bat nabarmentzen duten predikazioetan, alegia –Kuroda, 1972; Carlson, 1980; Kratzer, 1988, besteak beste) :

(28) a. Ikasle asko altuak/azkarrak/argiak dira
b. *Ikasle asko altua/azkarra/argia da

Egoera bati buruzko predikazioetan arazorik ez dago:

(29) a. Ikasle asko gaisorik dago egunotan
b. Ikasle asko gaisorik daude egunotan

Antzeko zailtasunak sortzen dira *bakoitz* -ekin :

(30) a. ??Ikasle bakoitza argia da
b. Aulki bakoitza hautsita zegoen

Bakoitz -ek hala ere badu nolabaiteko askatasuna, partitiboki jokatzen bada :

(31) a. Bertako ikasle bakoitza argia da
b. Talde horretako jokalaria bakoitza indartsua da

Posibilitate hau ez dago komunztaduragabeko *asko* -ren esku. Komunztaduragabeko formek ez dezakete egitura partitiborik har:

(32) a. Ikasle asko etorri da
b. *Ikasle ohietako asko etorri da

Iduri du predikazio kategoriko bat egiteko, izen sintagmaren erreferentzia ondo definitua egon behar duela. Egitura partitiboak horixe egiten du *bakoitz* -en kasuan. *Asko* eta *bakoitza* -ren arteko diferentzia hau beste batekin lotu nahi nuke. Zenbatzailearen izen osagarria isiltzeko orduan ez dute biek berdin jokatzten :

- (33) a. [_ bakoitza] bere orduan etorri da
b. (*)[_ asko] berandu etorri da

(33a)n izen zenbagarri bat uler dezakegu. (33b)n ez. (33b) masa izen bezala bakarrik uler daiteke (nekez berandu etortzen diren horietakoak), berriz ere masa izenak eta zenbagarriak bereizten direlarik. Hau da, *asko* zenbatzaileaz osaturiko sintagma komunztaduragabeek ezin dute haien izena isildu, *bakoitz* -ez osaturikoek bezala. Eman dezagun, ohi denez, izenen isiltzea komunztaduraren menpeko fenomeno dela. (33b)k erakusten du *asko* -ren forma mugagabea zinezko mugagabea dela. Aldiz, esan genezake *bakoitz* -ek singularreko komunztadura tasun bat eduki dezakeela, aukeran (Beghelli eta Stowell, 1997, antzeko proposamen baterako ingelesez). Formalki, singularra eta komunztadura eza berdinak lirateke 3. pertsonan. *Bakoitz* -en partitibozko formek beharrezkoa izango lukete. Komunztadura tasun hau, propietate pronominalak dituen (Chomsky, 1981 ; Rizzi, 1986) sintagma diskurtsuan ainguratzeko balio du. Badakigu predikazio kategorikoek subjektu mugatu bat behar dutela, hots diskurtsuan ongi ainguratua: komunztadura tasun pronominalak lan hori egiten du.

2.4. ELKARKARIAK

Asko zenbatzaileaz hornituriko sintagmek beti interpretazio plurala duten arren, elkarkariak ezin txerta daitezke komunztaduragabeko kontestuetan¹⁷.

- (34) a. *Ikasle askok elkarren antz haundia du
b. Ikasle askok elkarren antz haundia dute
- (35) a. *Ikasle askok elkar/bata bestea iraintzen du
b. Ikasle askok elkar/bata bestea iraintzen dute
- (36) a. *Ikasle askok elkarri/bata besteari loreak oparitzen dizkio
b. Ikasle askok elkarri/bata besteari loreak oparitzen dizkiote
- (37) a. *Ikasle asko elkarrekin/bata bestearekin joan da eskolara
b. Ikasle asko elkarrekin/bata bestearekin joan dira eskolara

Problema elkarkariekin da, ez orohar erlazio anaforikoekin¹⁸. Hona bihurkariak :

- (38) a. Irakasle askok bere burua gorai patzen du
b. Irakasle askok beren burua gorai patzen dute

Hau esplikatzten ahal da *asko* singularrekoa distributiboa bada. Zenbatzaile distributiboek ez dute elkarkaririk onartzen, pluraltasuna adierazi arren, bai ordea *X-ren burua* tankerako bihurkariak :

- (39) a. *Ikasle bakoitzak elkar ikusi du
b. Ikasle bakoitzak bere burua gorai patu du

Arrazoa hauze litzateke (Heim, Lasnik eta May, 1991, 75-76.orr.) : Elkarkariak badute (elkarkari izate hutsagatik, hots, beren egitura logikoan) distributiboa den atal bat, zenbait hizkuntzatan agerikoa dena¹⁹. Zenbatzaile distributiboek plurala den multzo baten baitan operatzen dute. Distribuzio operadorearen zeregina multzo plurala banakako aletan banatzea da, eta ale bakoitzari buruz predikazio bat ahalbideratzea. Honek esan nahi du ezin dela bi aldiz distribuzioa egin. Lehenengo banaketak multzo plurala banako aletan desegin du dagoeneko, eta banako ale horietan ezin da berriro distribuziorik eragin. Ikusi dugu komunztaduragabeko *asko* distributiboa dela. Eman dezagun Heim, Lasnik eta May-ren elkarkarien analisi semantikoa zuzena dela : orduan bi distribuzio operadorearen aitzinean gaude, eta horietako batek ez du banaketarik egiten ahal. Goiko perpau-sen arazoa beraz, semantikoa da. Ez da gauza bera gertatzen pluraleko formekin: hauek, ikusi dugun bezala, ez dute nahitaz intepretazio distributiborik. Hortaz operadore distributibo bakarra elkarkariak berak ekarritakoa da.

2.4. *-na* BANAKARIA

Asko -ren izaera distributiboak modu simple batean biltzen ditu singularreko formen hiru propietate desberdin: uztardurako mugak, interpretazio distributiboa, eta elkarkariekin josi ezina. Badu ordea problema bat : ezin du *-na* banakariarekin agertu, bestelako zenbatzaile distributiboak ez bezala²⁰ :

- (40) a. ??Ikasle askok liburu bana erosi du
b. Ikasle askok liburu bana erosi dute

- (41) a. Ikasle bakoitzak liburu bana erosi du
b. Mundu guziak liburu bana erosi du²¹

Zergatik portaera berezi hau, zenbatzaile distributiboei buruz ? Hemen konponbide bat kirmarratu besterik ez dugu egingo. Distribuzio orok baditu hiru atal (Heim, Lasnik eta May, 1991 ; Beghelli eta Stowell, 1997, besteak beste): (i) multzo plural bat, zeinen baitan distribuzioa egiten baita ; (ii) operadore distributibo bat (goiko *bakoitz* -en gisakoa) ; eta (iii) distribuzioa jasaten duen elementu bat : hau sintagma bat izan daiteke (euskaraz *-na* bezalako atzizki batez lagundua ager daiteke orduan), edo eventua adierazten duen elementua, eventua-aldagai bat²² (hortara behartuak gaude beste jasailerik ez dagoenean, 2.2. ataleko exenpluetan bezala). Eventua aldagai hau aditz izenaren bitartez edo inflexioaren bitartez adierazten da²³. Kasu horretan banatua dena eventua bera da. Zuzen bagabiltza *asko* -ren izaera distributiboa defendatzerakoan, ateratzen den ondorioa da singularreko formek ezin dutela, antza denez, eventua ez den beste jasailerik onar. Hori da funtsean *-na* rekin konbinatu ezina esaten ari zaiguna. Galdera, beraz, da zergatik singularreko formek behar duten eventua hartu distribuzioaren jasaile bezala. Ez dugu hemen argituko, baina honek bide ematen digu *asko* komunztaduragabekoaren bigarren propietate semantikoaz mintzatzeko, zeinekin, nere ustez, lotua baitago. *Asko* singularrekoa modu berezi batean lotzen zaio eventuari, ikusiko dugun bezala.

3. Asko mugagabearen interpretazio proportzionala

Asko mugagabeak balio proportzional bat du erantsia. Ikus esate baterako perpaus hauen arteko diferentzia :

- (42) a. Espainian euskaldun asko daude
b. Espainian euskaldun asko dago

Lehenbiziko perpausa egia izan daiteke edo ez, asko izatearen muga non jartzen den. Ifarraldeko ikuspegitik begiratuta, agian egia da. Bigarrena ordea faltsua da, bete betean. Espainian, nola begiratzen den ere, ez dago euskaldun askorik. (42b) perpausaren dimentsio berri bat sartu dugu : proportzionalitatearena. Espainian diren lagun guztiak hartuta, euskaldunak proportzio ttipi bat besterik ez dira, eta ez dago esaterik euskaldun asko dagoenik. Beste hitzetan esanik : mugagabeko formak agertzen diren perpausen egitasuna evaluatzeko *asko* ren izen osagarriak denotatzen duen sailaz haraindi jo behar dugu : euskaldunen kasuan (42b)n euskaldun ez direnak ere kontutan hartuaz²⁴.

Axolazko dimentsioa hemen proportzioa baldin bada, predikzio bat egiten dugu : proportziorik ametitzen ez duten kontestuetan mugagabeko *asko* -k ez luke ongi eman behar. Kontsidera ditzagun, hartara, honako perpausok :

- (43) a. ??Puzzle horretan zati asko dago
b. Puzzle horretan zati zail asko dago

(43a) arrotz egiten zaigu. Puzzlea eta puzzlea osatzen duten zatien artean ez baitago proportzio bat ezartzerik. Aldiz (43b)n proportzio bat sartu dugu, zati errezak eta zailak (eman dezagun, zero beti urdinari dagozkionak) bereiziaz. Kasu horretan, perpausa onargarria da. Ohar gaitezen pluraleko formekin ez dagoela inolako problemarik :

- (44) a. Puzzle horretan zati asko daude (nolako pazientzia izan duzun!)
b. Puzzle horretan zati zail asko daude

Printzipioz, proportzionalitatearen ezaugarri horrek ez ditu besterik gabe mugagabeko formak eta pluralekoak bereizten. Pluraleko *asko* ere proportzionala izan daiteke (Partee, 1988) :

- (45) Ikasle asko nekatuta etortzen dira eskolara

(45) bezalako perpaus batek, kontestuen arabera, bi interpretazio izan ditzake : bata kardinala edo « ahula », zenbateko hutsaz ari dena. Bestea, berriz, multzo baten barnean hautaketa egiten duena, partitiboa, « ikasletariko asko » ri dagokiona. Irakurketa hau proportzionala da. Eta proportzioa zenbatzailearen osagarriaren (izenaren) denotazioaren barnekoa da : haren azpimultzo bat, alegia. Aldiz, mugagabearen proportzioa ez da izenaren baitan ezartzen. (46a) ez da (46b)ren parekoa :

- (46) a. Ikasle asko etorri da gaur
b. Ikasletariko asko etorri dira gaur

Baizik eta (47)rena :

(47) Gaur etorri direnen artean asko ikasleak dira

Irakurketa honetan, eventua bera zenbatzailearen barruti edo errestrikzioan sartzen da.

4. Ondorioak

Asko komunztaduragabearen eta komunztaduradunaren arteko diferentzia semantikoak aztertu nahi izan ditugu hemen, kontestu sintaktiko desberdinetan sortzen diren portaera berezituari begiratuaz. Erakutsi dugu komunztaduragabeko formak bi propietate nagusi dituztela : distributiboak eta proportzionalak dira. Komunztaduragabeko formen proportzionaltasuna eventuaeren eduki deskriptiboa baliatuz osatzen da. Komunztaduradun formak ere proportzionalak izan daitezke, baina holakoetan erlazio proportzionala ez da eventuaeren deskripzioan bilatzen, baizik eta zenbatzailearen izenezko osagarrian.

Bibliografia

- BEGHELLI, F. eta T. STOWELL (1997) « Distributivity and negation : the syntax of *each* and *every* » Szabolcsi, A. (arg.), 71-108.
- COYOS, J.-B. (1999) *Le parler basque souletin des Arbailles : Une approche de l'ergativité*, L'Harmattan, Paris.
- EUSKALTZAINDIA (1985) *Euskal Gramatika Lehen Urratsak I*, Iruñea.
- EUSKALTZAINDIA (1993) *Euskal Gramatika laburra : Perpaus Bakuna*, Bilbo.
- HEIM, I., H. LASNIK eta R. MAY (1991) « Reciprocity and Plurality » *Linguistic Inquiry*, 22 : 1, 63-101. orr.
- IRIGOIEN, A. (1985) « Euskarazko izen sintagma mugatzaileak gabekoez » *Euskera* XXX, 129-139.
- KOSLICKI, K. (1999) « The Semantics of Mass Predicates » *Noûs* 33 : 1, 46-91.
- KURODA, Y. (1972) « The categorical and thethetic judgement » *Foundations of Language* 9, 153-185.
- LAFITTE, P. (1977) *Grammaire basque*, Elkar, Donostia.
- LINK, G. (1983) « The logical analysis of plurals and mass terms : a lattice-theoretical approach » R. Bauerle (arg.) *Meaning, Use and Interpretation of Language*, Walter de Gruyter, 302-323.
- MILSARK, GARY (1977) *Existential sentences in English*, doktoradutza tesia, MIT.
- MITXELENA, K. (1985) *Fonética histórica vasca*, Donostia.
- PARTEE, B. (1988) « Many Quantifiers » *Proceedings of the Fifth Eastern States Conference on Linguistics (ESCOL 88)*, Ohio State University, 383-402.orr.
- PELLETIER, F.J. eta SCHUBERT, L. (1989) « Mass Expressions » D. Gabbay eta F. Guenther (arg.) *Handbook of Philosophical Logic*, IV, 327-407.
- REINHART, T. (1983) *Anaphora and semantic interpretation*, Croom Helm, London.
- SZABOLCSI, A. (arg.) (1997) *Ways of Scope Taking*, Kluwer Academic Press.
- SZABOLCSI, A. (1997) « Background Notions in Lattice Theory and Generalized Quantifiers » Szabolcsi (arg.)
- ROTAETXE, K. (1979) « Numeral eta aditzen arteko konkordantziak » *FLV* 32, 259-267.
- TXILLARDEGI (1977) *Oinarri bila*, Donostia
- TXILLARDEGI (1977) « L'emploi de l'indéfini en Souletin », *FLV* 29
- TXILLARDEGI (1978) *Euskal Gramatika*, Ediciones Vascas, Donostia.
- VILLASANTE, L. (1983) *Estudios de sintaxis vasca*, Editorial Franciscana Aranzazu, Oñate.
- ZRIBI-HERTZ, A. (1996) *L'Anaphore et les Pronoms*, Presses Universitaires du Septentrion.

Notes

1. Zenbatzaile « ahulak » bezala ezagutzen direnak : *asko, gutxi, hainbat, franko, zenbait, ugari, gehiago/gutxiago* (Milsark, 1977).

2. Apartean gelditzen da Villasante (1983), zeinentzat *guti, hainbat, zenbait* eta *franko* mugagabeen bakarrik agertzen diren. Aski da begiratu bat OEHari ikusteko ez dela hala.

3. Lanaren mugak garbi azal ditzagun: batetik, ez ditugu gainerako zenbatzaileak tratatuko (lan hori bidean da). Bestetik, datuak Irun-Hondarribi aldekoak dira, *anitz* beraz, ez dugu aintzat hartuko. *Anitz* ek ikerketa berezitua behar du, seguru aski (eskerrak Beñat Oihartzabali, *asko* eta *anitz* -en arteko diferentzia batzuk seinalatzeagatik, komuntaduraren inguruan). Kanpoan gelditzen da baita ere zenbatzaile kardinalekin hizkera batzuetan gertatzen bide den antzeko fenomeno (Txillardegik, 79 ; Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna). Hemen tratatzen dugun fenomenoaren distribuzio dialektala ere, eginkizun gelditzen da. Ikus baita ere 8. Azpioharra. Nere eskerrona agertu nahi diet Maite Berruet eta Mayi Izari, nere galderak erantzuteagatik eta datuak eztabaidatzeagatik.

4. Txillardegik (1977) honako esenpluak ekartzen ditu (hau Santakruz bertsolariarena, 78.orr) : « zenbait predikadorek/sermoia asten du/eta atentziyua askok paratzen du ». Baina nola jakin hemen multzoak mintzo garen ala ez?

5. Hona hitzak: « Zenbakariak plurala baitira *erdaraz*, kalko-bidez sartu zaizkigu gero eta gehiago pluraletzko komuntadurak » (37.orr.). Araua emateko orduan baina, egungo egoera kutsatuari men egin behar zaiola dio: « ...honen zabalkunde delako medio, onartu beharrekoa ». Txillardegik/Larresororen bidea hartu zuen baita ere Garmendiak (Euskera, 1968, XIII, 287-290).

6. Txillardegik Etxepareren bertso batzuk dakarzki bere hipotesiaren berme. Hona hemen :

« anhitz gizon ari *bada* andrez gaizki erraiten
arhizki eta desoneski *baitituzte* aipatzen »

Bere hitzak : « *anhitz gizon* horrek osatzen duen multzoa lehenengo aldiz aipatzerakoan (oraindik ere, beraz, gizon-multzoa ez-ezaguna denean), « *bada* » irakurtzen dugu. Multzoaren berri dugunean, berriz, ... » baitituzte » plurala irakurtzen dugu ». Esplikazio hau ez da berez uztartzen hipotesiarekin: ez dirudi nahitaez Etxepareren azken bertsoa gaizki mintzo direnen banakako berri ematen duenik. Edozein kasutan, multzo bat aipatzeak ez ditu multzo horretako elementuak ezagun egiten: gaizki mintzo direnez ari da, nor ere baitira. Honelako esenpluek bestelako esplikazioa dute uztardura izeneko fenomeno sintaktikoaren barnean. Ikus 2.1. atala.

7. Ikus bereziki Irigoien (1985,1987). Baita Rotaetxe (1979).

8. Bere hitzetan: « ...mugagabeak singularra behar du aditzean beti. Nahiz kopuruari dagokionez, bi, hiru, mila, asko ala majina bat izan. Zuberoan erregela hau osoki betetzen da ; bestetan, erdalkeria aurreratu ala, ahuldu egin da erregela » (61.orr.). Txillardegik Etxahunen azterketa bat aurkezten du horren erakusle (FLV, 25, I-IV,1977 ; 29-55). Baina Etxahunengan bertan ez da zaila kontrako adibideak aurkitzea (ikus, esaterako, Haritschellarren edizioan, « Ahaide delezius huntan » en lehen lerroa), eta komuntaduraren joan-etorriko portaera hori *asko, zenbait* eta antzekoen eremura zabaltzen da Etxahunengan. Baita Tartasengan ere, bide batez (« Ontsa hiltzeko bidia » ren Eguzkitzaren edizioan, 64. orrialdea hirugarren lerroa, edo 65.ean, beste hainbatekin batera). Gèze-k (Éléments de Grammaire basque, Dialecte souletin, 1873) ere ez du aipatzen komuntadura singularrekoa behar duenik. Darrigolek (1827) beharrezkoa jotzen du numeroko komuntadura (Rotaetxe, 1979) pluraltasuna adierazten duten sintagma guzietan.

9. Ikus 233-234.orr. Hona Coyos-en beraren egoeraren laburpena (234.orr.) : « ...on pourrait observer que l'indication du nombre relève plutôt du marquage accusatif puisque l'accord se fait plus aisément avec un nominal à absolutif suffixé déterminant un verbe à auxiliaire izan ...qu'avec un nominal à absolutif suffixé déterminant un verbe à auxiliaire edun... et obligatoirement avec le nominal à suffixe ergatif... On pourrait dire au contraire que le nominal avec l'ergatif se différencie des deux autres : l'accord pluriel est obligatoire avec un quantificateur [*hanitz*, kasu honetan] et pas avec les nominaux à l'absolutif. Ceci est un trait d'ergativité » Sistema beraz aski konplexua da, eta ezin jar daiteke zuberera Txillardegiren komuntaduraren hipotesiaren oinarritako. Zubereraren sistema, beste aldetik, artikulua honetan deskribatuko dugunaren diferentzia da. Iduri du sistema horretako ezaugarri batzuk ekialdeko beste hizkeratan ere agertzen direla. Sistema horiek beraz, ez dute zertan hemen deskribatzen dena bezalakoa izan behar, eta ikerkizun uzten ditugu.

10. EGLU I-i jarraiki, beste honenbeste egiten dute Odriozola eta Zabalak (1992, 73.orr.)

11. Hemen literatura zabal bat daukan masa kontzeptu linguistikoaz ari naiz (ikus Schubert eta Pelletier, 1989 ; Koslicki, 1999). Ez agian, EGLU I eko « masaz ». Normalki komatxoak ez dira inozenteak izaten. Esan behar da Euskaltzaindiaren Euskal Gramatika : Perpaus Bakuna-k (1993) ez diola ikuspegi honi segit-

zen. Masa bezala hartzen den harriak singularreko komunztadura hartzen du. Banako edo zenbagarri gisa hartzen denak singularrekoa nahiz pluralekoa (106.orr.) Berehala sortzen den galdera da diferentziarik ote dagoen azken kasuan singularreko eta pluraleko formen artean. Horixe (aldez behintzat) argitzea du artikulatu honek xede.

12. Homogenoak diren predikatuak kumulatiboak eta banagarriak (divisive) dira (Link, 1983).

13. (10a) perpausa ona da baldin eta « ardo klaseak » zenbatzen baditugu, baina jakina, hori ez da masa irakurketa. Beste horrenbeste *hainbat* -i dagokionean.

14. *Guzti, dena, batzuk*, Art+oro bezalakoak ez dira halabeharrez banatzaile, *bakoitz* -en edo singularreko *asko* -ren gisan (ikus hurrengo atalak), eta ez dute halakoek uztardurarako erakusten duten murriztapenik erakusten. *Bakoitz* -en gisako zenbatzaileen eta *asko* -ren gisako komunztadura arauak ez datoz agian guziz bat. Ikus 2.3. atala.

15. Gauza bera gertatzen da beste zenbatzaileekin ere. Singularreko komunztaduradun formak bakarrik interpretazio distributibo onartzen dute. Adibidez *hainbat* -ekin :

- (i) a. Hain bat ikaslek harrizarra mugitu zuten (kolektiboa/distributiboa)
- b. Hainbat ikaslek harrizarra mugitu zuen (distributiboa)

16. Interesgarria da ikustea sozietate bat sartzen badugu perpausa ona dela :

- (i) Ikasle ohi asko bere gaztaroko neskalagunarekin topatu zen festa hartan

Kasu honetan ikasle *asko* -k adierazten duen multzoa ez da nahitaez kolektibo edo multzo gisa ulertu behar, eta perpausak badu interpretazio distributibo posible bat.

17. Literatura zaharrak salbuespen bakan batzuk ematen ditu zenbatasuneko aitzindariekin, baina salbuespen gehienak inperzonalekin gertatzen dira (OEK, *elkar* sarrera) :

- (i) Maitatzeko elkar ezagutu behar da (Jautarkol)
- (ii) Elkar behar da lagundu (Goyetche)

Inperzonalek subjektua ezabatua dute, eta pluraleko zentzua dauka. Ez dut zer esanik.

18. Ikus bidenabar, *X-ren burua* kasuek oso nekeza egiten dutela bai masa interpretazioaren hipotesia (EGLU I) eta baita multzo interpretazioarena ere (Txillardeggi, 1978), hemen banakoen buruez ari baikara.

19. Ingelesezt, forma konplexuak dira : *each other*. Lehen atala, *each* « bakoitz » , zenbatzaile distributiboa da. Bigarrena, haiek « the reciprocator » deitzen dutena, da banaketa horren aldagaia beste zerbait edo norbaitekin harremanetan jartzen duena, ingelesez *other* « beste ». Interesgarria da Uhlenbeck-ek (1928, 168.orr) -eta Mitxelenak (1985, 69.orr.), hari jarraiki- jatorri konplexua ikusten diotela euskarazko *elkar* elkarkariari: *hark har (izarñoak hemen alegiazko forma etimologikoa markatzen du).

20. Beste horrenbeste gertatzen da singularreko formez horniturik ager daitezkeen beste zenbatzaile batzuekin (*gutxi* eta *hainbat* adibidetako ematen ditugu) :

- (i) a. *Ikasle gutxik erosi du liburu bana
- b. Ikasle gutxik erosi dute liburu bana
- (ii) a. *Hainbat ikaslek liburu bana erosi du
- b. Hainbat ikaslek liburu bana erosi dute

21. *Mundu guzia* ere distributiboa da :

- (i) Mundu guziak harrizarra altxatu du (banaka izan behar du)

22. Eventu aldagaiaren ideia Davidson-engandik heldu da (1965). Davidson-entzat edozein esaldi jokatu eventua baten gaineko kuantifikazioa da. (i)-i dagokion forma logikoa ez da, Davidsonen ustetan (ii) (logikan eskuarki ematen dena), baizik eta (iib) :

- (i) Xabier goiz azaldu da
- (ii) a. Azaldu (goiz (Xabier) (ii) b. E(c) [Xabier, etorri, e]

(iib) honela irakurri behar da: « Bada eventua bat Xabier eta etorrera bat biltzen dituen ». Honen itxura espekulatiboa gora-behera, eventua semantikak garrantzi handia hartu du hizkuntza naturalen deskripzioan azken hogeit urtetan, oso emaitza interesgarriekin (erreferentzia honez gero klasiko batzuk: Higginbotham, 1985, 1987 ;Parsons, 1990).

23. Honen inguruan eztabaida dago. Lehenaren alde: Benedicto (1996), Baker eta Travis (1997) eta Etxepare eta Grohmann (2000). Bigarrenaren alde, besteak beste: Higginbotham (1984). Eztabaida funtsean aditz igoerak ondorio semantikorik duen edo ez da.

24. Honek esan nahi du *asko* mugagabekoa ez dela monotonikoa, ez baitu « lekuko minimorik » (« witness set », Szabolcsi, 1997). Lekuko minimoak zenbatzaile baten eremuaren (domain) lekukotzat har dai-

tezkeen gutxieneko multzoak dira. Esate baterako « bi gizon » bezalako zenbatzaile sintagma batean, lekuko minimoa bi gizon eta deus gehiagorik biltzen ez duen multzoa da. Honelako zenbatzaileak monotonikoak dira. « Monotonikoa » esan nahi du inferentzia kate bat ahalbideratzen duela multzo eta azpi multzoen artean. Har dezagun « bi gizon altu ». Honek goranzko inferentziak baimentzen ditu: bi gizon altu etorri badira orduan bi gizon etorri dira eta orduan bi bizidun, e.a., beraz monotonikoa da gorantz. Monotonikoak ez direnek ez dute honelako inferentzia katerik baimentzen. Esate baterako, « gizon altu gehienak » ez du goranzko (ez beheranzko) inferentziarik baimentzen : gizon altu gehienak etorri badira orduan ez dira nahitaez gizon gehienak etorri, e.a. *Asko* mugagabeak ez du honelako inferentziarik baimentzen eztaere: euskaldun hankamotz asko badago euskal herrian ez da halabeharrez egia euskaldun asko dagoenik, ezta hankamotz asko dagoenik ere. Proporzio bat ezartzen duten zenbatzaile guztiak ez –monotonikoak dira.